

# Erregistroa



# 10

## 2025eko urtarrila

Pedagogia Pentsioetan

JARDUNBIDE EGOKIAK

DEMOGRAFIA

Prestazioak

Gizarte Aurreikuspeneko Sistemak

Kontingentziak

Bazkideak

Erakundeak

Txostenak eta azterlanak

Inbertsioak

Rankingak

**Euskal Autonomia  
Erkidegoko  
gizarte-aurreikuspen  
osagarriaren  
behatokia**



OGASUN ETA FINANTZA SAILA  
DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y  
FINANZAS



### Dagoeneko abian dira autonomoentzako BGAEen bidezko enplegu-plan berriak

Eusko Jaurilaritzak eta Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako merkataritza-ganbarek langile autonomoentzako gizarte-aurreikuspeneko plan berriak aurkeztu dituzte, BGAEen bidez kudeatuko direnak. Ekimen hori 2023an hasi zen, alderdiek hitzarmen bat sinatuta, eta 2024an garatu da plan horien erakunde kudeatzaileak aukeratuta (Abanca, Bankoa, BBVA, Kutxabank, Laboral Kutxa, Mapfre, VidaCaixa). Ibilbide horrek "aukera ematen digu orain, urtebete geroago, gizarte-aurreikuspeneko tresna berri horiek abian jartzeari buruz hitz egiteko", adierazi du Ogasun eta Finantzetako sailburuak. "Zure oraina zure esku dago, zergatik ez zure etorkizuna?" lelopean hasi da plan horietara atxikitzeko sustapen-kanpaina.

[Informazio gehiago](#)



### Global Pensions Programme Euskadin egin zen lehen aldiz urrian

Global Pensions Programme, pentsioei buruzko nazioarteko foroa, lehen aldiz egin zen Euskadin, Bilbao Exhibition Centre egoitza zuela. XI. edizioan, eta bi egunez (urriak 22-23), foroak sektoreko berrehun profesional inguru bildu zituen, eta Robert Merton Ekonomiako Nobel sariduna ere bertan izan zen. Programan zehar, pentsioen esparruko erronkei eta aukerei buruz eztabaidatu zen, eta hainbat esperientzia partekatu ziren, horien artean Euskadiko BGAEena. Bertan, Noël d'Anjou Ogasun eta Finantzetako sailburuak berretsi zuen "Eusko Jaurilaritzak Euskadiko pentsioak etorkizunean garatzeko sistema osagarriak sustatzen jarraitzearen alde egindako apustua", eta apustu hori "irmoa da".

[Informazio gehiago](#)



### Euskadiko pentsio-sistema publikoaren 2024ko balantzea

Geuk egindako infografia honek Euskadiko pentsioen sistema publikoari buruzko adierazle nagusiak biltzen ditu. 2024aren amaieran, 526.108 pentsiodun zeuden Euskadin, hau da, 2023an baino 6.000 pentsiodun gehiago (+6.025). Hala, pentsiodun bakoitzeko bi langile baino gutxiago daude (1,94). Hala ere, ratio hori zertxobait hobetu da aurreko urtekoarekin alderatuta, enpleguaren dinamismoa dela eta, pentsiodunen kopuruak izandako igoera konpentsatzen baitu. Batez besteko erretiro-pentsioa 1.772 €-koa da, Estatuko handiena, eta 1.862 €-ra igozten da erretiro-pentsio berrien kasuan. Pentsioetan egindako gastu publikoa 12.531 milioi eurokoa izan da 2024an.

[Informazio gehiago](#)



ESA 2024 35


17 December 2024

Key findings from the 2024 ESAs Dry Run exercise

### DORA indarrean jartzeak dakartzan eskakizunak

Urtarrilaren 17an sartuko da indarrean Erresilientzia operatibo digitalari buruzko Europako Erregelamendua (DORA), finantza-erakundeek nahitaez bete beharreko IKT hornitzaileen arriskuak kudeatzeko esparrua ezartzen duena. Arauak, besteak beste, agintaritza eskudunari IKT hornitzaileekiko kontratuen berri ematera behartzen du. Inplikaturako erakundeei DORAREN eskakizunak betetzen laguntzeko, Europako Gainbegiratzeko Agintaritzek (EBA, EIOPA eta ESMA) prestakuntza-ariketa bat jarri zuten abian 2024an (Dry Run), eta emaitzek erakusten dute aztertutako erregistroen % 6,5ek bakarrik gainditu zituztela kalitate-kontrol guztiak, nahiz eta erregistroen % 50ek 116 kontroletatik bost baino gutxiagotan baino ez zuen huts egin. Hala eta guztiz ere, hiru erakundeek uste dute "ezarritako eskakizunak betetzeko helburua eskura dagoela, eta, horretarako, sektoreak ahalegin gehiago egin beharko ditu".

[Informazio gehiago](#)



### Pensions Outlook 2024ren edizio berria

Pensions Outlook-en zazpigarren edizioak kapitalizazio-pentsioen estaldura zabaltzeko bideak aztertzen ditu, eta fokua jartzen du sistema horietan nola hobeto integra daitezkeen enpresak, batez ere txikiak, eta langile autonomoak. Gainera, atxikimendua eta ekarpenak sustatzeko finantza-pizgarrien zereginari eta erretiro hobia lortzeko inbertsio-estrategiei heltzen die. Era berean, erretiroa ordaintzeko fasea ebaluatzen du, baita etxebizitzaren bidez finantza-beharrak hobeto nola ase ere (alderantzizko hipoteka, etxebizitza itzultzea...). Azkenik, pentsio-panelak (dashboards) garatzea gomendatzen du, informazioa eta komunikazioa hobetzeko eta pertsonei erretiroa hobeto planifikatzen laguntzeko.

[Informazio gehiago](#)



### International Platform Sustainable Finance

#### Taxonomia eta finantza jasagarriak, azterketa sakona

Finantza Jasagarrien Nazioarteko Plataformak (IPSF), jardunbide egokiak partekatze eta finantza jasagarrien arloko ikuspegiak eta tresnak aldatzeko lanean, trantsizio berdeari eta taxonomiari buruzko hainbat txosten argitaratu ditu COP29aren esparruan. Nabarmentzekoa da "Taxonomien azterketa aurreratua eta finantza jasagarrien panorama IPSFko kide diren herrialdeetan" argitalpena. Bertan, dauden eta sortzen ari diren taxonomia-esparruen arteko antzekotasunak eta desberdintasunak jasotzen dira, oinarriko elementuei, iraunkortasun-helburuei, taxonomiaren oinarri diren printzipioei, erabilitako sailkapen-sistemari eta inbizi-dagokienez. Halaber, "Common Ground Taxonomy" argitalpen-saila nabarmentzen da, EBko eta Txinako taxonomien arteko eremu komunak aurkezten dituen konparazio-ariketa.

[Informazio gehiago](#)



OECD Capital Market Series

### OECD Capital Market Review of Spain 2024

CAPITAL MARKETS FOR A VIBRANT AND SUSTAINABLE  
SPANISH ECONOMY AND CORPORATE SECTOR

#### ELGAren gomendioak Espainiako pentsio-sistemaren inguruan

ELGak Espainiako kapitalen merkatuari buruzko txostena argitaratu du, haren pentsio-sistemari lotutako zenbait gomendio adieraziz. Epe laburrera iradokitzen du i) erreskate goiztiarren aukera ezabatzea, ii) plan indibidualerako ekarpenen zerga-kenkariaren mugak handitzea, enplegu-plan batek estaltzen ez dituen aurreztaileentzat behintzat; iii) epe ertainera, ekarpenen mugak fiskalki kengarriak diren mugetatik bereiztea eta ekarpenen mugak murriztea edo ezabatzea; iv) langile autonomoentzat zerga-kenkariaren mugak hainbat urtetan zehar kalkulatzeko ahalbidetzea (diru-sarreraren aldakortasuna); v) pentsio-funtsek ordaintzen dituzten kudeaketa- eta gordailu-komisioen mugek inbertsio-aukerak bidegabeki mugatzen dituzten berrikustea eta inbertsio-funts alternatiboetarako muga handiagoko sartzeko aukera baloratzea; epe luzera, vi) pentsio-funtsen tamaina handitzeko politikak bultzatzea eta enplegu-planetan aurrezpena sustatzea.

[Informazio gehiago](#)



Comisión Europea - Decisiones de infracción

### Paquete de procedimientos de infracción de julio: principales decisiones

Bruselas, 25 de julio de 2024

#### Desglose por ámbitos de actuación

En su paquete habitual de decisiones sobre procedimientos de infracción, la Comisión Europea emprende acciones jurídicas contra diversos Estados miembros que no han cumplido las obligaciones que les incumben en virtud del Derecho de la Unión. Estas decisiones, que abarcan distintos sectores y ámbitos de actuación de la Unión Europea, tienen por objeto velar por la correcta aplicación del Derecho de la Unión en beneficio de los ciudadanos y de las empresas.

A continuación se presentan las principales decisiones que ha adoptado la Comisión, agrupadas por ámbitos de actuación. La Comisión va a archivar asimismo setenta y dos asuntos que los Estados miembros afectados han resuelto sin que ella haya tenido que seguir adelante con el procedimiento.

Para obtener más información sobre los procedimientos de infracción de la Unión Europea, véase la sección completa sobre [procedimientos de infracción](#). Para conocer más detalles sobre la historia de algún asunto, véase el [registro de decisiones sobre procedimientos de infracción](#).

#### 1. Medio ambiente

(Para más información: Adalbert Jahns, tel. +32 22953156; Malika Dreux, tel. +32 22954673)

[Cartas de emplazamiento](#)

La Comisión insta a los PAÍSES BAJOS, AUSTRIA y ESLOVENIA a que cumplan la Directiva marco sobre el agua

#### EBk Estatuko aurreikuspen-sistemen erregulazioaren bi puntu zalantzan jarri ditu

Europako Batzordeak Espainiari dagokionez hasitako arau-hausteen prozeduren artean, [INFR (2024) 4009] zenbakia nabarmentzen da, Estatuko gizarte-aurreikuspeneko sistemen bi alderdi zehatzen erregulazioari eragiten baitio. Lehenik eta behin, Batzordeak uste du aurreikuspen-sistemetarako ekarpenen gaineko urteko gehieneko ekarpenaren finantza-muga ezartzea murrizketa bat dela, eta horrek urratu egin ditzakeela langileen zirkulazio askearen, kapitalen eta abarren Erkidegoko printzipioak, merkatu bakarrari oztopo eginez eta pentsio osagarrietarako sarbidea mugatuz. Bigarren gaiak aipatzen du Espainiak erregimen osagarrietako pentsio-eskubideak estatu-mailan eskualdatzeko aukera ematen duela, baina ez mugaz haraindikoetan, eta hori barne-merkatuaren askatasunen aurkakoa izan daitekeela.

[Informazio gehiago](#)



### Pension Markets in Focus 2024

#### Espainiak du pentsioen itsulapiko txikiena, ELGAren arabera

*Pension Markets in Focus 2024* dokumentuak mundu osoko pentsio-sistemen aktiboen bilakaera erakusten du, pentsio-hornitzaileak (pribatuak) eta erreserbako funts publikoa bereizita. Funts publikoari buruzko datuek agerian uzten dute Espainiak duela pentsioen itsulapikorik txikiena, 5.578 milioi euroko ondarearekin, BPGren % 0,4 besterik ez baita; Frantziar, berriz, pentsioak estaltzeko funts publikoak BPGren % 7ra iristen dira; AEBetan, % 9,7ra, eta Suedian, % 31,4ra. Eta hori guztia, azken urtean Espainiako funts publikoen zenbatekoa nabarmen handitu den arren (+% 161, urte arteko tasan), mutualitateen superabitari eta Belaunaldien arteko Ekitate Mekanismoaren transferentziei esker.

[Informazio gehiago](#)

#### Buletin gehiago

>> [Informazio gehiago](#)

[Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Aurreikuspen Osagarriaren Behatokia](#)